



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko urriaren 15a

99. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Garapenerako Lankidetzari buruzko Lehenengo Plan Zuzendariaren ebaluazio bat aurkez dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Legebiltzarrera igor dezan publizitate instituzionala arautzeko foru lege proiektu bat. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakasleentzako laguntza zentroak izan daitezkeen maisu-maistren prestakuntzaz arduratuko direnak, eskola-eremuan arreta-defizita eta hiperaktibitatea daukaten ikasleak detektatu eta tratatzeko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gehiago itxaron gabe elkarriketak has ditzan, NUPen Medikuntzako gradu-ikasketak, bai eta jadanik eskatutako beste titulazio batzuk ere, ezartzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua premiatzen da “Josefina Arregui” zentro psikogeriatrikoarekin harremanetan jar dadin eta harekin bideragarritasun plana adostu dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, pobrezia desagerraraztearen aldeko nazioarteko eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, buruko osasunaren nazioarteko eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Foruzaingoak edo beste edozein polizia kidegok hartutako ADN laginak zaindu eta gordetzeko erregistro bat egoteari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (9. or.).
- Galdera, “Klima Aldaketaren aurkako 2008-2012 Ekintza Plana eta Estrategia” izeneko agiria aurkezteko epeari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (9. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuak herritarrak artatzeko Tuteran duen “InfoNavarra-012” izeneko bulegoko langileak Nafarroako Gobernuko inolako departamentu nahiz erakunde publikotakoak ez izatearen arrazoiei buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Uxueko santutegiko mosaikoak direla-eta aurreikusi dituen jarduketei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (11. or.).
- Galdera, eskolako haurren osasuna kudeatzeko eta horri buruzko behatokirako proiektua egin eta hura kudeatzeko EmySalud, S.L eta Sinergium Sistemas, S.L. enpresei 140.623,62 euroko dirulaguntza bat emateko arrazoiei eta helburuei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (11. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Osasun Departamentuak planifikatu duen Beriainen kontsultategi berri bat egitea, 457.000 euroko gastuarekin, jakinik horrek ez diela konponbiderik emanen egun dauden arazoei, ez epe laburrean, ez epe ertainean ere, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (12. or.).
- Galdera, 2009-2012 eperako Tokiko Inbertsio Planean sartu diren obregatik toki entitateek aurkeztutako erreklamazioei buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (13. or.).
- Galdera, farmakoak garatzen jardunen duten hamar bat enpresa sortu izateari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Alhama ibaian, Corella parean, agertu den isurketari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (14. or.).
- Galdera, PFEZaren azken ekitaldian “Beste helburu sozial batzuk” izeneko atalari dagokion % 0,7a aplikatuz ateratzen den zenbatekoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (15. or.).
- Galdera, “Dirulaguntza ADHI elkarteari” izeneko 42200 423001 4819 322400 kontusailaren garapenari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (16. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasleek 2010-2011 ikasturtean zenbat baja hartu dituzten eta haiengatik zenbat ordezkapen egin diren, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (16. or.).
- Galdera, irakasleentzako lan osasuneko prestakuntza-ikastaro berariazkoei buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (17. or.).
- Galdera, ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutua dela-eta diruz lagundu diren proiektuei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Garapenerako Lankidetzari buruzko Lehenengo Plan Zuzendariaren ebaluazio bat aurkez dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Garapenerako Lankidetzari buruzko Lehenengo Plan Zuzendariaren ebaluazio bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Garapenerako lankidetzari buruzko politika aldiro berrikusi behar da, haren bolumen ekonomikoa eta gizakiengan nahiz gizartean duen eragina direla eta. Ebaluazio etengabe horrek zenbait aldagai hartu behar ditu kontuan, garapenerako lankidetzaren eraginkortasuna ahalik eta handiena izan dadin. Horren harira, Garapenerako Lankidetzako Lehen Plan Zuzendaria onetsi zen 2007an, aurtun arteko indarraldiarekin.

Nafarroa denez Espainiako Estatu osoan garapenerako laguntza handiena ematen duen autonoma

erkidegoa, zenbait alderdiren azterketa kritikoa egitea komeni da, gai horretako politika publikoen funtzionamendua hobetu eta ahal den gutzitan fintze aldera.

Pobrezia desagerraraztea eta garapenaren alde lankidetzan aritzea erronka moral bat da aberastutako herrialdeentzat. Horregatik, arlo honetan egindako lan instituzionalak ona behar du izan, nolokotasun- eta zenbatekotasun-ikuspegietatik.

Mozio honetan ez gara sartzan jarri beharreko zenbatekoaren eztabaidan, baina badago zer hobetu gauzak egiteko moduan. Gure ustez, lehenengo eta behin, beste arlo batzuetan egiten den bezala, Lankidetzako Lehen Plan Zuzendarian xedatuaren betetze mailari buruzko azterketa zorrotza egin beharra dago, heldu den urtean bigarren plana, hobetua, taxutzeko.

Bigarrenik, gure ustez, gobernu kanpoko erakundeek eta erakunde publikoek formula bera erabili behar dute garapenerako laguntza kalkulatzeko orduan, bai laguntza hobetu dadin, bai eztabaida ulergarriagoa izan dadin. Horrenbestez, uste dugu Lehen Plan Zuzendarian baliatu zen formula dela adostasunik handiena duena eta gehien hurbil dakiokena parlamentu-talde guztiek sinatu zuten Pobreziaren aurkako Itunaren filosofiari.

Hirugarrenik, argi dago pilaketa-arazoak daukela Nafarroako lankidetzaren proiektuen jarraipena egitean; izan ere, kasurik gehienetan kanpoan kontratatu behar izaten dira urtero proiektuen ebaluazio eta jarraipenerako zereginak.

Gure ustez, bizi dugun krisia bizi dugulako hain zuzen ere, inoiz baino ahalegin handiagoa egin behar da orain zenbatekotasunaren nahiz nolokotasunaren ikuspegietatik Nafarroako Garapenerako Laguntza Ofiziala hobetzeko eta handitzeko. Hortaz, garbi dago bidegabekoa dela garapenerako

lankidetzarako kontusailetan edozein murrizketa egitea, hain zuzen ere gutxien duten biztanleak, txiroetan txiroenak, ukitzen dituelako.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2011ko lehen hiruhilekoan zehar legebiltzar honetan aurkez dezan Garapenerako Lankidetzako Lehen Plan Zuzendariari buruzko ebaluazio bat.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2011ko lehen hiruhilekoaren barruan aurkez dezan Garapenerako Lankidetzako Bigarren Plan Zuzendaria.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio zenbait neurri aurkez ditzan –besteak beste, langile gehiago kontratatzea–, proiektuen ebaluazioa egitean pilaketak ekidite aldera.

4. Nafarroako Parlamentuak erakunde publiko-
ei eta GKE-
ei eskatzen die kalkulua egiteko irizpideak bateratzera jo dezaten, erreferentziako formula bakarra definituz, Lehen Plan Zuzendarian eta Pobreziaren aurkako Itunean garapenerako laguntzarako ezarritako kalkulu-irizpidetik abiatuta.

Iruñean, 2010eko urriaren 6an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Legebiltzarrera igor dezan publizitate instituzionala arautzeko foru lege proiektu bat.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Foru Legebiltzarrera igor dezan publizitate instituzionala arautzeko foru lege proiektu bat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Honen bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da publizitate instituzionala arautzeko foru lege proiektu bat igor dezan Legebiltzarrera, zeinaren bidez kontzeptua definituko baita eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoek kontratuak egitean nahitaez bete beharreko irizpideak, baldintzak eta printzipioak ezarriko baitira.

Orain dela urte batzuk, Ikus-entzunezkoen Kontseiluak Nafarroako Gobernuari eskatu zion Foru Komunitateko Administrazioak sortzen duen publizitate instituzionalaren kudeaketa arautu zezan. Horrela, bada, erakunde horrek berak azaltzen duenez, Nafarroako Gobernuak 1/2003 Foru Agindua onetsi zuen, azaroaren 11koa, Nafarroako Gobernuko eledun den aldetik Toki Administrazioiko kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko publizitate instituzionala kontratatzeko irizpideak zehazten dituen. Foru agindu hori, ordea, Nafarroako Foru Komunitateko publizitate instituzionala kontratatzeko bete beharreko zenbait jarraibide ezartzera mugatu zen, baina, Estatuko esparruan eta arlo horri buruzko legeak onetsi dituzten beste autonomia erkidego batzuetan ez bezala, ez zion heldu horren araubide juridikoa osoki zehazteari.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren gomendioei jarraikiz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-tal-

deak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du publizitate instituzionala arautzeko foru lege proiektu bat igor dezan Legebiltzarrea, zeinaren bidez kontzeptua definituko baita

eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoek kontratuak egitean nahitaez bete beharreko irizpideak, baldintzak eta printzipioak ezarriko baitira.

Iruñean, 2010eko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakasleentzako laguntza zentroak izan daitezen maisu-maistren prestakuntzaz arduratuko direnak, eskola-eremuan arreta-defizita eta hiperaktibitatea daukaten ikasleak detektatu eta tratatzeko.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita irakasleentzako laguntza zentroak izan daitezen maisu-maistren prestakuntzaz arduratuko direnak, eskola-eremuan arreta-defizita eta hiperaktibitatea daukaten ikasleak detektatu eta tratatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Parlamentu honetako zenbait kide ANDAR elkartearekin bildu ginenean, elkarte horrek bere

ustez interes handikoak diren zenbait erreibindikazio helarazi zizkigun (elkarrekin Erriberako haur hiperaktiboak eta arreta-defizita dutenen familiak ordezkatzeko dituzte).

Elkartearen eskarietako batzuk ondo ezagunak dira. Hona:

- Haur eta gazteentzako unitate bat Erriberara, adingabe hiperaktiboak adindunak artatzeko toki fisikoa ez den batean artatzea helburu.

- Ikastetxeetan arreta-arazoak dituzten adingabe horiek behar bezala detektatzeko eta artatzeko beharrezkoak diren trebetasunen arloko prestakuntza ematea irakasleei.

- Hezkuntza-baliabideak finkatzeko beharra, behar den laguntza emanez ikasle hiperaktiboekin lan egiteko. Diagnostika eta tratamendua adingabeen lehen urteetan egin eta hasiz gero, emaitzak oso onak dira.

Erabaki proposamena:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakasleentzako laguntza zentroak izan daitezen maisu-maistren prestakuntzaz arduratuko direnak, eskola-eremuan arreta-defizita eta hiperaktibitatea daukaten ikasleak detektatu eta tratatzeko.

Iruñean, 2010eko urriaren 7an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gehiago itxaron gabe elkarrizketak has ditzan, NUPen Medikuntzako gradu-ikasketak, bai eta jadanik eskatutako beste titulazio batzuk ere, ezartzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gehiago itxaron gabe elkarrizketak has ditzan, NUPen Medikuntzako gradu-ikasketak, bai eta jadanik eskatutako beste titulazio batzuk ere, ezartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengoaren babesean, honako mozioa hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Hamasei hilabete igaro dira Parlamentu honek Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntzako

ikasketak ezartzearen bideragarritasuna aztertze-ko lan-talde bat eratzea onetsi zuenetik. Ondoren, lan-taldea abian jarri gabe ere, beste lan-talde bat eskatu eta onetsi zen, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren epe ertaineko eta luzeko helburuak eta planak aztertze-ko, Europako goi mailako hezkuntza gunearen beharrezkoen testuinguruan bigarren bultzada bat emanez. Azken emaitza izan da, hamasei hilabeteren buruan, abiatu ere ez dela egin, eta, okerragoa dena, ez dagoela abian jartzeko itzaropenik.

Gizartearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren beharrezkoak eta eskariak ikusita, Nafarroa Bairen jarrera izan da gure unibertsitatearen gaitasuna sustatzea eta aldezte-ko egoki irizitako graduak, graduondoak nahiz gainontze-ko tituluak eskaintze-ko, eta Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak ados jarri behar dutela, behingoz hori gauzatzeko.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du luzamendutan ibili gabe has ditzan elkarrizketak, NUPen medikuntzako gradu-ko ikasketak, bai eta jadanik eskatutako beste batzuk eta aipatu unibertsitatearen garapenerako egokitzat jotzen diren bestelako titulazio batzuk ere, ezartzeko prozesua abiarazte aldera.

Iruñean, 2010eko urriaren 7an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da “Josefina Arregui” zentro psikogeriatrikoarekin harremanetan jar dadin eta harekin bideragarritasun plana adostu dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen baita “Josefina Arregui” zentro psikogeriatrikoarekin harremanetan jar dadin eta harekin bideragarritasun plana adostu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluen eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

ARFE-Felipe Lecea fundazioa irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, eta Nafarroako Foru Komunitatean Josefina Arregui zentro psikogeriatrikoa kudeatzen du, haren titularra izateaz gain. Zentro horrek egonaldi laburreko ospitaleratze-araubideko osasun arloko laguntza eskaintzen du, beste zerbitzu batzuen artean, gaixo psikogeriatrikoentzat, bereziki demenzia-sindromeak (Alzheimer eta beste gaixotasun batzuk) eta zainketak edo zaintza somatikoa behar dituzten bestelako

nahaste psikiatrikoak dituztenak. Gaur egun, hori da halako gaixoetan espezializatutako osasun zentro bakarra Nafarroan.

Iragan otsailaren 3an, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean aho batez onetsi zuten parlamentu-taldeen ondotik hitzez hitz ageri den erabaki proposamena (2010eko otsailaren 18ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen):

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du Altsasuko Josefina Arregui zentro psikogeriatriko problema ekonomikoak konpon ditzan lehenbailehen, eta ziurta dezan zentro horren bideragarritasun ekonomikoa eta funtzionamendu normala, itunean sartuz, horretarako, 21 oheak, hau da, gaur egun dauden ohe guztiak, eta onartuz zentroak berak prestatutako bideragarritasun plana, ziurtatze aldera, halatan, zentroak bideragarritasuna eta lana izatea epe ertain eta luzean.”

Mozioa bete ez denez eta zentroaren egoerak aurtun okerrera egin duenez –hainbeste, non 2011ko urtarriletik aurrera jardunean jarraitzeko arrisku larria duen–, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du “Josefina Arregui” zentro psikogeriatrikoarekin harremanetan jar dadin eta harekin bideragarritasun plana adostu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du dauden hogeita bat oheak abenduaren 31 baino lehen itundu ditzan, zentro horren iraupena ziurtatzeko.

Iruñean, 2010eko urriaren 7an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Adierazpen instituzionala, pobrezia desagerraraztearen aldeko nazioarteko eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du “Txirotasunaren aurka matxina zaitetz” izeneko mobilizazioarekin.

2. Nafarroako Parlamentua berriro atxikitzen zaie Milurtekoaren Garapen Helburuei, eta bere eskumenen esparruan, helburu horiek betetzeko konpromisoa hartzen du.”

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, buruko osasunaren nazioarteko eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu eta babesa adierazten die buruko osasun arazoak dituzten pertsonen arreta eta integrazioa sustatzeko lan egiten duten gaixoen eta familien elkarteei, eta berresten du buruko gaixotasunak dituzten pertsonekin duen konpromisoa.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du asmo sendoa duela buruko osasunak lehentasuna

izan dezan Nafarroako Foru Komunitateko osasun arloko politiketan.

3. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Buruko Osasunari buruzko Estrategian ezarritako helburuak eta jarduerak ezartzeko buruko osasunaren sustapenaren alorrean eta baita arrisku faktoreen prebentzioaren, arreta egokiaren, errehabilitazioaren eta ikerketaren alorrean ere.”

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Foruzaingoak edo beste edozein polizia kidegok hartutako ADN laginak zaindu eta gordetzeko erregistro bat egoteari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, Foruzaingoak edo beste edozein polizia kidegok hartutako ADN laginak zaindu eta gordetzeko erregistro bat egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ba al da behar bezala araututako erregistrorik, Foruzaingoak nahiz Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean araututako beste edozein polizia kidegok jasotako ADN laginei buruz? Zein da, nolana ere, araua? Zein dira lagin horiek gordetzeko eta zaintzeko baliatutako sistemak eta metodoak? Zein dira lagin horiei dagozkien epeak, protokoloak eta helburuak?

Iruñean, 2010eko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, “Klima Aldaketaren aurkako 2008-2012 Ekintza Plana eta Estrategia” izeneko agiria aurkezteko epeari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, “Klima Aldaketaren aurkako 2008-2012 Ekintza Plana eta Estrategia” izeneko agiria aurkezteko epeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, kasuko batzordean ahoz erantzun diezai-2010eko apirilaren 14an, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak ondoko konpromisoak hartu zituen, “Klima Aldaketaren aurkako 2008-2012 Ekintza Plana eta Estrategia” dela-eta klima aldaketari aurre egite aldera hartutako neurriei buruz informatzeko agerraldian:

“Estrategia hori prestatzen ari gara. Konpromisoa hartzen dut Gobernuari aurtengo ekainaren 30a baino lehen aurkezteko, oporrak hartu aurre-

tik, lanak bukatzeaz daudelako. Aurreratzen ahal dizuet ez dagoela arazo bakar bat ere.”

Hori dela eta, hau jakin nahi dugu:

- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak bete al zuten Parlamentuan hartutako konpromisoa eta aurkeztu al zion aurtengo ekainaren 30a baino lehen Gobernuari, hark onets zezan, “Klima Aldaketaren aurkako 2008-2012 Ekintza Plana eta Estrategia”?

- Konpromiso hori bete ez bazuen, Nafarroako Gobernuak zergatik urratu du berriz ere Klima Aldaketaren aurkako Ekintza Plana onesteko konpromisoa?

Iruñean, 2010eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Nafarroako Gobernuak herritarrak artatzeko Tuteran duen “InfoNavarra-012” izeneko bulegoko langileak Nafarroako Gobernuko inolako departamentu nahiz erakunde publikotakoak ez izatearen arrazoiei buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak herritarrak artatzeko Tuteran duen “InfoNavarra-012” izeneko bulegoko langileak Nafarroako Gobernuko inolako departamentu nahiz erakunde publikotakoak ez izatearen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztán, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Irailaren 3an inauguratu zen Tuteran Nafarroako Gobernuaren Herritarrak Artatzeko Bulegoa, “InfoNavarra 012” izeneko. Ondoren, irailaren 14an, indarrean sartu zen herritarrak informatzeko eta artatzeko zerbitzuak arautzen dituen foru dekretua. Prentsan agertutako albisteen arabera, bulego horretan herritarrak artatzen dituzten langileak ez dira inolako departamentu edo erakunde publikotakoak, baizik eta Nasersakoak edo Anim-sakoak.

- Nafarroako Gobernuak herritarrak artatzeko Tuteran duen “InfoNavarra-012” izeneko bulegoko langileak zergatik ez dira Nafarroako Gobernuko inolako departamentu nahiz erakunde publikotakoak? Zer bide edo irizpide baliatu dira lanpostu horiek betetzeko?

Iruñean, 2010eko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Nafarroako Gobernuak Uxueko santutegiko mosaikoak direla-eta aurreikusi dituen jarduketei buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Uxueko santutegiko mosaikoak direla-eta aurreikusi dituen jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parla-

mentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Uxueko erretaulako mosaiko modernistei buruzko galdera hau egin du, Batzordean ahoz erantzuteko:

Eskualdeko hedabideek jaso duten albistearen arabera, 1910eko maiatzaren 1ean inauguratutako Uxueko erretaulako mosaiko modernistak Lluís Bru i Salellesek egin zuen, hots, mugimendu artistiko horretako mosaiko-egile gailenetako batek.

Ondokoa jakin nahi dut, ikusita datu berri horiek, mosaikoen egungo egoera eta Uxueko santutegian egiten ari diren zaharberritze integraleko prozesua:

- Zer egiteko asmoa du Gobernuak mosaiko horiei dagokienez?

Iruñean, 2010eko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, eskolako haurren osasuna kudeatzeko eta horri buruzko behatoki-erako proiektua egin eta hura kudeatzeko EmySalud, S.L eta Sinergium Sistemas, S.L. enpresei 140.623,62 euroko dirulaguntza bat emateko arrazoiei eta helburuei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, eskolako haurren osasuna kudeatzeko eta horri buruzko behatoki-erako proiektua egin eta hura kudeatzeko EmySalud, S.L eta Sinergium Siste-

mas, S.L. enpresei 140.623,62 euroko dirulaguntza bat emateko arrazoiei eta helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Emysalud, S.L. eta Sinergiun Sistemas, S.L. enpresei 140.623,62 euroko dirulaguntza eman zaie, eskolako haurren osasunari buruzko behatutako proiektua egin eta hura kudeatzeko. Zergatik? Zein da helburua?

Iruñean, 2010eko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, jakiteko zergatik Osasun Departamentuak planifikatu duen Beriainen kontsultategi berri bat egitea, 457.000 euroko gastuarekin, jakinik horrek ez diela konponbiderik emanen egun dauden arazoei, ez epe laburrean, ez epe ertainean ere.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Osasun Departamentuak planifikatu duen Beriainen kontsultategi berri bat egitea, 457.000 euroko gastuarekin, jakinik horrek ez diela konponbiderik emanen egun dauden arazoei, ez epe laburrean, ez epe ertainean ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jarduketak eraginkortasunaren eta efizientziaren ikuspuntutik planifikatu behar dira beti, eta gastuak lehenetsi, batez ere krisi garaietan.

Hori dela-eta, hona galdera:

Zure Departamentuak Beriainen kontsultategi berri bat egitea planifikatu du, 457.000 euroko gastuarekin, jakinik horrek ez diela konponbiderik emanen egun dauden arazoei, ez epe laburrean, ez epe ertainean ere. Zergatik?

Iruñean, 2010eko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, 2009-2012 eperako Tokiko Inbertsio Planean sartu diren obren- gatik toki entitateek aurkeztutako erreklamazioei buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, 2009-2012 eperako Tokiko Inbertsio Planean sartu diren obren-
gatik toki entitateek aurkeztutako erreklamazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazio Departamentuak idatziz erantzun dezan:

- Toki entitateek zenbat erreklamazio aurkeztu dituzte 2009-2012 eperako Tokiko Inbertsio Planean sartu diren obren baremazio eta esleipen prozesua dela eta? Erreklamazioak aurkeztu dituzten toki entitateen zerrenda.

- 2009-2012 eperako Tokiko Inbertsio Planean sartu diren obren baremazio eta esleipen prozesuari aurkeztutako zenbat erreklamaziok eragin dute administrazioarekiko auzi-errekurtsoren bat? Errekurtsioak aurkeztu dituzten toki entitateen zerrenda.

Iruñean, 2010eko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, farmakoak garatzen jardunen duten hamar bat enpresa sortu izateari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, farmakoak garatzen jardunen duten hamar bat enpresa sortu izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuoko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, idatziz erantzun diezai-on:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunaren ahotik jakin dugu Nafarroako Gobernuaren asmoa dela Iberdrolako akzioen dirua arrisku-kapitaleko funts bat eratzeko erabiltzea eta funts hori farmakoak garatzeko hamar enpresa sortzen inbertitzea. Hori horrela, honakoa jakin nahi dugu:

1. Ekoitziko diren farmakoak zehaztu.

2. Zer enpresatan inbertitzeko asmoa dagoen: enpresen izena.

3. Horietako bakoitzean inbertitu nahi den zenbateko xehatua.

4. Akzioak saltzeko aurreikusitako data.

5. Saldu nahi diren akzioen bolumena.

6. Zer kontabilizazio izanen du salmenta horrek Nafarroako aurrekontu orokorretan?

7. Zer da Nabio? Zer helburu ditu?

8. Nork kudeatuko du Nabio izeneko arrisku-kapitaleko funtsa?

9. Ba al du Nafincorekiko kontraesanik edo bateraezintasunik?

Iruñean, 2010eko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Alhama ibaian, Corella parean, agertu den isurketari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Alhama ibaian, Corella parean, agertu den isurketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuari Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak idatziz erantzuteko:

Irailaren amaiera aldean legez kanpoko produkturen bat isuri zen Alhama ibaira. Antza denez, isurketa Cintruenigoko herriaren parean egin zen.

Afekziorik handiena Alhama ibaiak Corellan zehar egiten duen tartean ikus zitekeen, non

arrain asko agertu baitziren zilar-koloreko ur gainean flotatzen.

Urak Corellako udal mugapean, Recuaja izeneko alderdian, zeukan koloreaz eta kirats handiaz ohartarazi zuten Corellako zenbait bizilagunek.

Alderdi horretan bada presa bat: han jaiotzen da Corellako zelaiak ureztatze erretan bat, Ampol ibaia izeneko.

Hori dela-eta, foru parlamentarien elkarte honek hauxe jakin nahi du:

- Ba al dakigu zer-nolako isuria izan zen?
- Nondik heldu zen isurketa hori?
- Zer eragin izan du ibaiko faunan eta floran?

Ampol ibaia izeneko ureztatze-erretenetik igaro zen ura. Ur horrek izan al du afekziorik ureztatzen dituen baratzeetan?

• Afekziorik egon baldin bada, ba al dago arriskurik soroko produktuak kontsumituz gero?

• Zer neurri hartu ditu departamentuak horrelako isurketak berriro gerta ez daitezen?

• Araztegiak –hala ematen du– ez baldin badu isurketaz gero funtzionatzen, hondakin-urak zuzenean isurtzen ari al dira ibaira?

• Igorri afekzio horri buruz eginiko akten eta txosten guztien kopia.

Iruñean, 2010eko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, PFEZaren azken ekitaldian “Beste helburu sozial batzuk” izeneko atalari dagokion % 0,7a aplikatuz ateratzen den zenbatekoari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, PFEZaren azken ekitaldian “Beste helburu sozial batzuk” izeneko atalari dagokion % 0,7a aplikatuz ateratzen den zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregela-

menduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzen duen Foru Legearekin bat, Nafarroako Gobernuak “gizarte-intereseko beste xede batzuetarako % 0,7ko funtsa” aplikatzeko aurreikuspena prestatu behar du, azken ekitaldiko PFEZeko “gizarte-intereseko beste xede batzuetarako” % 0,7 aplikatetik heldu den zenbateko osoari dagokiona.

Azken ekitaldiko PFEZaren kanpaina bukatuta dagoenez, ondokoa jakin nahi dut:

- Zein da azken ekitaldiko PFEZeko “gizarte-intereseko beste xede batzuetarako” % 0,7 aplikatetik heldu den zenbatekoa?

- Nafarroako zenbat zergadunek hautatu dute laukitxo hori?

Iruñean, 2010eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, “Dirulaguntza ADHI elkarteari” izeneko 42200 423001 4819 322400 kontusailaren garapenari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, “Dirulaguntza ADHI elkarteari” izeneko 42200 423001 4819 322400 kontusailaren garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, idatziz erantzuteko:

Nafarroako 2010eko aurrekontu orokorretan bada 25.000 euroko kontusail bat, arreta defizitera, hiperaktibotasunera eta inpultsibotasunera bideratua.

Hori dela eta, “Dirulaguntza ADHI elkarteari” izeneko 42200 423001 4819 322400 kontusailaren garapenari buruzko informazioa jaso nahi dugu.

Iruñean, 2010eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasleek 2010-2011 ikasturtean zenbat baja hartu dituzten eta haiengatik zenbat ordezkapen egin diren.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasleek 2010-2011 ikasturtean zenbat baja hartu dituzten eta haiengatik zenbat ordezkapen egin diren.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

María Luisa Mangado Cortes andreak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu dizkio Hezkuntzako kontseilari jaunari, idatziz erantzun diezazkion:

1. Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasleen laneko bajen kopurua, 2010-2011 ikasturtea hasi zenetik gaur arte. Baja horiek zein ikastetxetan gertatu diren zehaztea nahi dugu.

2. Baja horietako zenbat ordeztu dira? Zehaztu zenbat ordeztu diren eta zenbat ari diren oraindik ordeztzen eta zer ikastetxetakoak diren.

3. Ordeztu gabe gelditu al da lanposturik laneko baja dela eta? Hala baldin bada, esan zein izan den arrazoia eta zein ikastetxetan gertatu den hori.

Iruñean, 2010eko urriaren 7an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, irakasleentzako lan osasuneko prestakuntza-ikastaro berariazko- ei buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, irakasleentzako lan osasuneko prestakuntza-ikastaro berariazko-
ei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkezten dizkio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Alberto Catalán Higuera jaunari, idatziz erantzun diezazkion:

• Ba al da laneko osasunaren arloko prestakuntza ikastaro berariazko irakasleentzat?

• Halakorik baldin badago, osasunaren arloko zenbat prestakuntza ikastaro berariazko antolatu ziren 2009-2010 ikasturtean? Zehaztu ikastetxeak eta zenbat pertsonari eskaini zaizkien.

• Osasunaren arloko zenbat prestakuntza ikastaro berariazko antolatu dira 2010-2011 ikasturtean? Zehaztu ikastetxeak eta zenbat pertsonari eskaini zaizkien, bai eta zein dauden egiteke ere.

Iruñean, 2010eko urriaren 7an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutua dela-eta diruz lagundu diren proiektuei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutua dela-eta diruz lagundu diren proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko urriaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Ondokoa jakin nahi dut Ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutuari buruz:

• Sortu zenetik, urtez urte, zer proiektu lagundu ditu diruz? Zein izan da zenbatekoa? Zehaztu: proiektuak, zenbatekoak, arduradunak eta partehartzaileak.

Iruñean, 2010eko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

